**UDAL BATZARRAK 2023KO UZTAILAREN 19AN EGINDAKO EZ OHIKO SAIOAREN AKTA.-**

Soraluzeko hirian, bi mila eta hogeita hiruko uztailaren hemeretzian, hemeretzi orduak izanik eta aurrez deialdia delarik, Udaletxeko Saio Aretoan Maite Quintanilla Lete, Ana Rosa Maiztegui Gorostidi eta Iker Uzin Larrañaga Alkateorde jaun-andreak, Ainara Osoro Txurruka, Iker Aldazabal Basauri, Verónica Galarraga Izaguirre, Ramón Gallastegi Aldazabal, Patricia Borinaga Albéniz eta Ignacio Rubio Torrientes Zinegotzi jaun-andreak, Unai Larreategi Azurmendi Alkate jaunaren Lehendakaritzapean biltzen dira, lehenengo deialdiz eta Udaleko Idazkaria ere bertan dagoela, Itziar Sagastagoia Zabala And. alegia.

Jone Alberdi Álvarez zinegotzi andreak ez du etortzerik izan.

**1.- 2023KO UZTAILAREN 5EKO SAIOAREN AKTA, HALA BADAGOKIO, ONARTZEA.-** Aho batez onartu da 2023ko uztailaren 5eko udalbatza akta.

**2.- ALKATETZA DEKRETUEN BERRI EMATEA.-** Uztailaren 3ko 132/2023 zenbakidun dekretutik uztailaren 13ko 140/2023 zenbakidun dekretu arteko Alkatetza dekretuen berri jaso du Udalbatzak.

**3.- 2022KO EKITALDIKO AURREKONTUAREN KONTU OROKORRA ONARTZEA.-** 2023ko martxoaren 27an Kontu batzorde bereziak 2022 urteko Aurrekontuaren eta Ondarearen Kontuak eta kontu orokorra aztertu zituen eta oneritzia eman zien.

Ondoren, Kontu orokorraren informazio publiko aldia ireki zen 2023ko maiatzaren 22ko Gipuzkoako aldizkari ofizialean argitaratuz eta inolako alegaziorik ez da izan.

Kontu orokorrak izaera ezberdineko gaiak

**ACTA DE LA SESIÓN EXTRAORDINARIA CELEBRADA POR EL PLENO DEL AYUNTAMIENTO EL DÍA 19 DE JULIO DE 2023.-**

En la villa de Soraluze-Placencia de las Armas, siendo las diecinueve horas del día diecinueve de julio de dos mil veintitrés, previa convocatoria al efecto, se reúnen en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial, los Sres. Tenientes de Alcalde Dña. Maite Quintanilla Lete, Dña. Ana Rosa Maiztegui Gorostidi y D. Iker Uzin Larrañaga y los Sres. Concejales Dña. Ainara Osoro Txurruka, D. Iker Aldazabal Basauri, Dña. Verónica Galarraga Izaguirre, D. Ramón Gallastegi Aldazabal, Dña. Patricia Borinaga Albéniz y D. Ignacio Rubio Torrientes, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde, D. Unai Larreategi Azurmendi, en primera convocatoria y asistiendo como Secretaria, Dña. Itziar Sagastagoia Zabala.

Excusa su asistencia la concejala Dña. Jone Alberdi Álvarez.

**1.- APROBACIÓN, EN SU CASO, DEL ACTA DE LA SESIÓN DE FECHA 5 DE JULIO DE 2023.-** Se aprueba por unanimidad el acta del Pleno de 5 de julio de 2023.

**2.- DAR CUENTA DE LOS DECRETOS DE ALCALDÍA.-** Se da cuenta al Pleno de los decretos comprendidos entre el decreto de Alcaldía número 132/2023, de 3 de julio, y el número 140/2023, de 13 de julio.

**3.- APROBACIÓN DE LA CUENTA GENERAL DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2022.-** El 27 de marzo de 2023 la Comisión Especial de Cuentas examinó y aprobó las Cuentas del Presupuesto y Patrimonio del año 2022.

Posteriormente, se abrió un periodo de información pública de la Cuenta General en el Boletín Oficial de Gipuzkoa del 22 de mayo de 2023 no habiéndose presentado alegación alguna.

La cuenta general refleja cuestiones de

ESKU3f710778-2a33-4fde-8a01-e3dc17cddc57



Santa Ana, 1 • SORALUZE (20590) • Tfn.: 943753043 • Fax: 943753112 • udala@soraluze.eus • www.soraluze.eus

islatu ditu eta bere xede nagusia udal erakundearen ondare eta ekonomia egoera jasotzea da, eta aurrekontuaren exekuzioa laburbiltzea, jarraian, Euskadiko Kontu epaitegiari berri emateko.

diferente naturaleza y su objetivo principal es recoger la situación patrimonial y económica de la entidad municipal y resumir la ejecución del presupuesto para, a continuación, dar cuenta al Tribunal de Cuentas de Euskadi.

Kontu batzorde bereziak proposatuta, **UDAL BATZARRAK, AHO BATEZ, ERABAKI DU:**

A propuesta de la Comisión Especial de Cuentas **EL PLENO, POR UNANIMIDAD**, **ACUERDA**:

Soraluzeko Udalaren 2022ko aurrekontuaren kontu orokorraren edukia onartzea eta Euskadiko kontu epaitegiari igortzea.

Aprobar el contenido de la Cuenta General del Presupuesto del Ayuntamiento de Soraluze para 2022 y remitir la misma al Tribunal de Cuentas de Euskadi.

**4.- 2024. URTEKO LAN-EGUTEGIRAKO HERRIKO JAI-EGUNA IZENDATZEA.-**

Udal Batzarrak aho batez erabaki du uztailaren 26a, Santa Ana eguna, herriko jai-egun izendatzea 2024. urteko lan-egutegirako.

**4.- DESIGNACIÓN DE FIESTA LOCAL PARA EL CALENDARIO LABORAL DEL AÑO 2024.-**

La Corporación Municipal acuerda por unanimidad designar el día 26 de julio, festividad de Santa Ana, como fiesta local para el calendario laboral del año 2024.

**5.- GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO 5.000 BIZTANLETIK BEHERAKO UDALERRIETAKO UDAL-ESTALKIETAN TOKIKO ENERGÍA-KOMUNITATEEN BIDEZ ETA PARTEKATUTAKO AUTOKONTSUMO-ERREGIMENEAN, EGUZKI-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK EZARTZEKO, GAUZAZKO DIRU LAGUNTZEN 2023KO DEIALDIAREN EBAZPENEAN ZEHAZTUTAKO KONPROMISOAK ONARTZEKO DOKUMENTUA ONARTZEA.-**

**5.- APROBACIÓN DEL DOCUMENTO DE APROBACIÓN DE LOS COMPROMISOS ESTABLECIDOS EN LA RESOLUCIÓN DE LA CONVOCATORIA DE SUBVENCIONES EN ESPECIE 2023 PARA LA IMPLANTACIÓN DE INSTALACIONES SOLARES FOTOVOLTAICAS EN LAS CUBIERTAS MUNICIPALES DE LOS MUNICIPIOS DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA DE MENOS DE 5.000 HABITANTES EN RÉGIMEN DE AUTOCONSUMO COMPARTIDO A TRAVÉS DE COMUNIDADES ENERGÉTICAS LOCALES.**

Alkate jaunak gaia aurreko agintalditik datorrela esan du. Denek dakiten bezala, plaka fotovoltaikoak jarri nahi dira udal-estalki desberdinetan, zehazki lau puntutan. Horretarako, 274.728,08 euroko inbertsioa egingo du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

El Sr. Alcalde introduce el punto diciendo que el tema viene del anterior mandato. Todos son conocedores de que la actuación comprende la instalación de placas fotovoltaicas en diferentes cubiertas municipales, en concreto en cuatro puntos. Para ello se va a realizar una inversión de 274.728,08 euros por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

Behin diru laguntza Soraluzeri esleituta, Udalak zenbait konpromiso hartu behar ditu bi administrazioen arteko lankidetza antolatzeko, energia berriztagarrien, tokiko energia-komunitateen eta abarren arloan. Eta agiri hori onartzen denean, Gipuzkoako Foru Aldundiak plaken

Una vez que la subvención a recaído en Soraluze el Ayuntamiento ha de adoptar una serie de compromisos para articular la cooperación entre ambas Administraciones en el ámbito de las energías renovables, comunidades energéticas locales, etc. Y una vez que se apruebe este

ESKU3f710778-2a33-4fde-8a01-e3dc17cddc57

hornidura lizitatzeko aukera izango du datorren irailetik aurrera.

documento la Diputación Foral de Gipuzkoa estará en disposición de licitar el suministro de las placas a partir de septiembre.

Udalbatzak, bertaratutako batzordekide guztiak aho batez izanik, ERABAKITZEN DU:

El Pleno, por unanimidad de los corporativos asistentes, ACUERDA:

Lehena. Gipuzkoako lurralde historikoko 5.000 biztanletik beherako udalerrietako udal-estalkietan tokiko energia-komunitateen bidez eta partekatutako autokontsumo-erregimenean, eguzki-instalazio fotovoltaikoak ezartzeko, gauzazko diru laguntzen 2023ko deialdiaren ebazpenean zehaztutako konpromisoak onartzeko dokumentua onartzea.

Primero. Aprobar el documento de aprobación de los compromisos establecidos en la resolución de la convocatoria de subvenciones en especie 2023 para la implantación de instalaciones solares fotovoltaicas en las cubiertas municipales de los municipios del territorio histórico de Gipuzkoa de menos de 5.000 habitantes en régimen de autoconsumo compartido a través de comunidades energéticas locales.

Bigarrena. Alkate-Udalburuari ahalmena ematea aipatu dokumentua Soraluzeko Udalaren izenean eta ordezkaritzan sina dezan.

Segundo. Facultar al Alcalde-Presidente para la firma de dicho documento, en nombre y representación del Ayuntamiento de Soraluze.

Hirugarrena. Akordioaren jakinarazpena egitea.

Tercero. Proceder a la notificación del acuerdo.

*GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO 5.000 BIZTANLETIK BEHERAKO UDALERRIETAKO UDAL-ESTALKIETAN, TOKIKO ENERGIA-KOMUNITATEEN BIDEZ ETA PARTEKATUTAKO AUTOKONTSUMO-ERREGIMENEAN, EGUZKI-INSTALAZIO FOTOVOLTAIKOAK EZARTZEKO GAUZAZKO DIRULAGUNTZEN 2023KO DEIALDIAREN EBAZPENEAN ZEHAZTUTAKO KONPROMISOAK ONARTZEKO DOKUMENTUA.*

*DOCUMENTO DE ACEPTACIÓN DE LOS COMPROMISOS ESTABLECIDOS EN LA RESOLUCIÓN DE CONVOCATORIA DE 2023 DE SUBVENCIONES EN ESPECIE PARA LA IMPLANTACIÓN DE INSTALACIONES SOLARES FOTOVOLTAICAS A TRAVÉS DE COMUNIDADES ENERGÉTICAS LOCALES Y EN RÉGIMEN DE AUTOCONSUMO COMPARTIDO EN MUNICIPIOS DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA CON MENOS DE 5.000 HABITANTES.*

*Nik, ___________________________ jaunak/andreak (izen-abizenak), ____________ NAN zenbakia duenak, _______________ (e) ko Udaleko _______________ (alkatea, idazkaria, etab.) gisa, adierazten dut onartzen ditudala, erakunde horren izenean, jarraian adierazten diren konpromiso guztiak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko 5.000 biztanletik beherako udalerrietako udal-estalkietan, tokiko energia-komunitateen bidez eta partekatutako autokontsumo-erregimenean, eguzki-instalazio fotovoltaikoak ezartzeko gauzazko dirulaguntzak emateari dagokionez:*

*D./Dña. ___________________________, con D.N.I. nº ____________, en calidad de _______________ (Alcalde/a, Secretario/a, etc.) del Ayuntamiento de _______________, manifiesta que acepto en nombre de dicha entidad todos los compromisos que se indican a continuación en relación con la concesión de subvenciones en especie para la implantación de instalaciones solares fotovoltaicas en cubiertas municipales de municipios del Territorio Histórico de Gipuzkoa de menos de 5.000 habitantes, a través de comunidades energéticas locales y en régimen de autoconsumo compartido:*

*1. Udalak doan baimena ematen dio GFAri eguzki panel fotovoltaikoak jartzeko I. eranskinean zehazten diren udal-estalkietan, bost*

*1. El Ayuntamiento autoriza gratuitamente a la DFG la instalación de paneles solares fotovoltaicos en las cubiertas municipales que*

ESKU3f710778-2a33-4fde-8a01-e3dc17cddc57



Santa Ana, 1 • SORALUZE (20590) • Tfn.: 943753043 • Fax: 943753112 • udala@soraluze.eus • www.soraluze.eus

*urterako, instalazioak martxan jartzen direnetik zenbatzen hasita. Epe hori amaitutakoan, eta gauzazko dirulaguntza emateko ebazpenaren IV. eranskineko A ataleko 3. puntuan aurreikusitakoa betez (GFAk bere gain hartzen ditu betebehar horiek), instalazio horiek doan besterenduko dira udalaren alde, eta, beraz, udal jabetzakoak izango dira, eta instalazioak udal inbentarioan sartu beharko dira, jabari publikoko ondasun gisa.*

*2. Udalak konpromisoa hartzen du instalazioen ustiapena eta bertan sortzen den energia tokiko energia-komunitatearen alde lagatzeko, gutxienez hogei urtez. Komunitate horrek bere gain hartu beharko ditu instalazioen mantentze-lanen kostua eta erantzukizuna, bai eta ustiapenaren ondoriozko zerga-betebeharrak ere.*

*3. Era berean, udalak eman beharko ditu instalazioak egiteko behar diren udal-baimenak, eta horien kostua bere gain hartuko du. Halaber, udal-estalkietarako sarbidea erraztu beharko die bai kontratista adjudikaziodunari bai Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen Zuzendaritza Nagusiko teknikariei, bost urteko epean, instalazioak doan besterendu arte. Era berean, obra amaitzen den unetik aurrera, bere gain hartuko ditu hautatutako estalkietan GFAk instalatutako bizi-lerroak ikuskatzeko eta mantentzeko gastuak.*

*4. Udala bere udalerrian eratuko den tokiko energia-komunitatearen parte izango da, eta aktiboki parte hartuko du hura sortzen, herritarrei zuzendutako dinamizazio-, sustapen- eta publizitate-jarduueretan lagunduz.*

*5. Edozein arrazoirengatik tokiko energia-komunitatea sortzea ezinezkoa bada, udalerrian aurreikusitako eguzki-instalazio fotovoltaikoen ustiapena udalaren esku geratuko da, eta udal eraikinen edo instalazioen autokontsumo modalitatean soilik erabiliko dela ziurtatu beharko du. Kasu horretan, eta instalazioaren lehen bost urteetan, gauzazko dirulaguntza emateko ebazpenaren IV. eranskineko A ataleko 3. puntuan aipatutako administrazio-emakida udalaren aldekoa izango litzateke, tokiko energia-komunitaterik ez balego.*

*se detallan en el anexo I, por un periodo de cinco años, a contar desde la puesta en marcha de las instalaciones. Transcurrido dicho plazo, y en cumplimiento de lo previsto en el punto 3 del apartado A del Anexo IV de la Resolución de concesión de la subvención en especie, obligaciones asumidas por la DFG, dichas instalaciones serán enajenadas gratuitamente a favor del Ayuntamiento, por lo que serán de propiedad municipal, debiendo incluirse las instalaciones en el inventario municipal como bienes de dominio público.*

*2. El Ayuntamiento se compromete a ceder la explotación de las instalaciones y la energía generada en las mismas a favor de la comunidad energética local durante un periodo mínimo de veinte años. Esta comunidad deberá asumir el coste y la responsabilidad del mantenimiento de las instalaciones, así como las obligaciones fiscales derivadas de su explotación.*

*3. Asimismo, el ayuntamiento deberá otorgar las licencias municipales necesarias para la realización de las instalaciones, asumiendo el coste de las mismas. Asimismo, deberá facilitar el acceso a las cubiertas municipales tanto al contratista adjudicatario como a los técnicos de la Dirección General de Medio Ambiente de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en el plazo de cinco años, hasta la enajenación gratuita de las instalaciones. Asimismo, a partir de la finalización de la obra, asumirá los gastos de inspección y mantenimiento de las líneas de vida instaladas por la DFG en las cubiertas seleccionadas.*

*4. El Ayuntamiento formará parte de la comunidad energética local que se constituya en su municipio y participará activamente en su creación, colaborando en actividades de dinamización, promoción y publicidad dirigidas a la ciudadanía.*

*5. Cuando por cualquier circunstancia no sea posible la creación de una comunidad energética local, la explotación de las instalaciones solares fotovoltaicas previstas en el municipio quedará a disposición del ayuntamiento, que deberá asegurar su uso exclusivamente en la modalidad de autoconsumo de los edificios o instalaciones municipales. En este caso, y durante los cinco primeros años de la instalación, la concesión administrativa a que se refiere el punto 3 del apartado A del Anexo IV de la Resolución de*

ESKU3f710778-2a33-4fde-8a01-e3dc17cddc57

*6. Edozein arrazoirengatik tokiko energia-komunitatea iraungitzen bada, udalak bere gain hartu beharko du instalazioen ustiapena, eta sortzen den energia bideratu beharko du kontsumo publikoak estaltzera.*

*7. GFAk eguzki-instalazio fotovoltaikoak egiteko kanpoko laguntzak eskuratzen baditu, instalazioen titulartasuna udalari eskualdatu ondoren, udalak bete egin beharko ditu laguntza horiek ematen dituen erakundeak instalazio horien onuradunentzat ezartzen dituen betebeharrak.*

*concesión de la subvención en especie sería a favor del Ayuntamiento si no existiera comunidad energética local.*

*6. En caso de extinción de la comunidad energética local por cualquier causa, el ayuntamiento deberá asumir la explotación de las instalaciones y destinar la energía generada a la cobertura de los consumos públicos.*

*7. En el caso de que la DFG obtenga ayudas externas para la realización de instalaciones solares fotovoltaicas, una vez transmitida la titularidad de las mismas al ayuntamiento, éste deberá cumplir con las obligaciones que la entidad concedente establezca para los beneficiarios de dichas instalaciones.*

Iker Aldazabal zinegotziak esan du aurreko agintalditik datorren proiektua dela. Azken urteotan, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek energia berriztagarriak ezartzearen alde lan egin dute. Hainbat urrats eman dira, eta adibide gisa aipatu du 2017an Sologoen zentral hidroelektrikoa erosi izana. Eta proiektu honekin lau estalkietan plakak izango ditugula gehitzen du.

El concejal Iker Aldazabal dice que se trata de un proyecto que viene del anterior mandato. A lo largo de los últimos años los grupos EAJ-PNV y PSE-EE han trabajado en favor de la implantación de las energías renovables. Se han ido dando diferentes pasos, citando a modo de ejemplo la adquisición de la Central Hidroeléctrica de Sologoen el año 2017. Añade que con este proyecto tendremos placas en cuatro cubiertas.

Zinegotziak zentrala energia-komunitatean integratzeko bidea aztertzeko eskatu du.

El concejal solicita que se estudie la vía de la integración de la central en la comunidad energética.

Alkate jaunari galdetu dio ea amaitu diren kiroldegiko estalkian plaka fotovoltaikoak instalatzeko lanak, eta alkateak erantzun dio azken ikutuak ematen ari zaiela.

Pregunta al Sr. Alcalde si han terminado los trabajos de instalación de placas fotovoltaicas en la cubierta del polideportivo a lo que el Sr. Alcalde responde que prácticamente han finalizado.

Azkenik, gauzazko laguntza horietan zentratzen da. Esan du Udalaren lana dela energia-komunitateak sortzeko kudeaketa egokiak egitea, aldi berean herritarrei informazioa eman eta haiek erakarri beharrez.

Por último se centra en estas ayudas en especie. Dice que es labor del Ayuntamiento realizar las gestiones oportunas para crear las comunidades energéticas, debiendo informar y atraer a los ciudadanos.

Udal honek emisioei dagokienez udalerri neutroa izateko apustua egin behar duela dio. EAJ-PNV taldea udal gobernuarekin elkarlanean aritzeko prest agertu da.

Sostiene que la apuesta de este Ayuntamiento ha de ser el de convertirse en un municipio neutro en emisiones. El grupo EAJ-PNV muestra su disposición a colaborar con el gobierno municipal.

ESKU3f710778-2a33-4fde-8a01-e3dc17cddc57

Patricia Borinaga zinegotziak adierazi du, Iker Aldazabal zinegotziak bezala, aurreko agintaldian hasitako proiektua dela, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko sail sozialista batek gidatutakoa. Estatuko legerian ezarritako distantzien gaia dela-eta, zentrala tokiko energia-komunitatean sartzeko arazoak egon daitezkeela aipatu du. Hala ere, bere ustez, zain egon beharko litzateke, zentrala energia-komunitatearen barruan sartzea punta-puntakoa izango litzatekeelako.

La concejala Patricia Borinaga manifiesta, al igual que el concejal Iker Aldazabal, que se trata de un proyecto iniciado en el anterior mandato y liderado por un departamento socialista en Diputación Foral de Gipuzkoa. Comenta que por un tema de distancias establecidas en la legislación estatal quizás haya problema para incluir la central dentro de la comunidad energética local. Sin embargo, considera que habrá que estar pendiente ya que sería un puntazo incluir la central dentro de la comunidad energética.

Laguntza hauen bidez instalatu beharreko plaken erregimenari dagokionez, bost urteko epearen ondoren, Gipuzkoako Foru Aldundiak Udalari lagako dizkio, eta panel horiek instalatuta, tokiko energia-komunitateak, 200 etxebizitza inguruni zerbitzua eman ahal izatea aurreikusten da. Halaber, energia-komunitatea 20 urtean mantentzeko konpromisoa hartuko da.

En cuanto al régimen de las placas a instalar mediante estas ayudas tras un perido de cinco años se realizará la cesión por parte de la Diputación Foral de Gipuzkoa al Ayuntamiento y se prevé que la comunidad energética local, con la instalación de estos paneles, pueda dar servicio a alrededor de 200 viviendas. También se adquiere el compromiso de mantener la comunidad energética en 20 años.

Alkate jaunak esan du proiektu interesgarria dela.

El Sr. Alcalde dice que se trata de un proyecto interesante.

**<u>6.- ESKARI ETA GALDERAK.-</u>**

**<u>6.- RUEGOS Y PREGUNTAS.-</u>**

-Patricia Borinaga zinegotziak galdetzen du ea arroparako edukiontzia udalerriko erdigunean jartzeko aukerarik dagoen.

-La concejala Patricia Borinaga pregunta si hay alguna posibilidad de instalar el contenedor de ropa en algún lugar más céntrico del municipio.

Aipatu zinegotziaren agerraldiaren harira, Maite Quintanilla zinegotziak olio-edukiontzien kokapena ere aipatzen du, eta agian kokalekuak berrantolatu beharko direla esan du.

Al hilo de la intervención de la concejala citada la concejala Maite Quintanilla cita también la ubicación de los contenedores de aceite comentando que quizás haya que reorganizar las ubicaciones.

Alkate jaunak esan du datorren 27an mankomunitatea eratzeko osoko bilkura deitu dela eta egun horretan kontsulta egingo duela.

El Sr. Alcalde dice que el próximo día 27 está convocado el pleno para la constitución de la mancomunidad y que ese día hará la consulta.

-Alkate jaunak oporrez gozatzea opa die guztiei eta jaiak gozameneko eta

-El Sr. Alcalde desea a todos que disfruten de las vacaciones y que las fiestas sean

ESKU3f710778-2a33-4fde-8a01-e3dc17cddc57

erespetuko gune izatearen esperoan.

Eta beste gairik ezean eta hemeretzi orduak eta hamasei minutu direnean, Lehendakaritzaren aginduz saioa bukatutzat ematen da, hori guztia Idazkari bezala ziurtatzen dudalarik.

un espacio de disfrute y respeto.

Y no habiendo más asuntos de qué tratar y siendo las diecinueve horas y dieciséis minutos, de orden de la Presidencia se levanta la sesión, de todo lo cual, como Secretaria, certifico.

IDAZKARIAK,
*La Secretaria,*

SORALUZE-PLACENCIA DE LAS ARMAS
UDALA
AYUNTAMIENTO



Santa Ana, 1 • SORALUZE (20590) • Tfn.: 943753043 • Fax: 943753112 • udala@soraluze.eus • www.soraluze.eus

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU3f710778-2a33-4fde-8a01-e3dc17cddc57**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06510*
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06510*